

Irurtzunen, bi mila eta bederatziko martxoaren hogeita hamaikan, arratsaldeko zazpiak direnean, Ezohiko Bilkura egitearren Irurtzungo Udaleko Udalbatza, legeak agintzen duen moduan deituta, Batzar-gelan elkartu da Juan Jose Iriarte Vitoria alkate-lehendakaria buru dela. Bertan izan dira ondoren aipatzen diren zinegotziak:

Francisco Goicoechea Arbizu  
Jose Javier Recalde Maestre  
Saray Ongay García  
Jose Luis Viñas Estudillo  
Xabier Unanua Goicoechea  
Jose Peinado Cuesta  
Luis Enrique de la Calle Moreno  
Maria Nieves Uterga Juango  
Eduardo Murugarren Frances  
Francisca Arruabarrena Quintana

Eta idazkaria naizen hau, Santos Iragui Hualde.

## **AURREKO BILKURAREN AKTA ONETSI**

Bilkurari hasiera emanda, udalburuak deialdiarekin batera banatu den 2009ko martxoaren 7an egindako Bilkuraren Aktari zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion galdetu du. Oharrrik egin ez zaionez, aho batez onartu da.

## **ALKATETZAK HARTUTAKO ERABAKIEN IRAKURKETA**

2009ko martxoaren 9az geroztik Alkatetzak eman dituen Ebazpenak irakurri dira eta, honenbestez, zinegotziak jakinaren gainean daude.

## **UDAL EKIPAMENDUKO ERAIKINA EGITEKO LANEN BEHIN-BEHINEKO ESLEIPENA**

Udal-ekipamenduko eraikin bat egiteko lanak kontratatzeko Mahaiaren (2009ko martxoaren 30ean egindako bilkuran onartua) proposamena aztertuta, honako hau erabaki da aho batez: udal-ekipamenduko eraikina eraikitzeke lanak behin-behinekoz *Eycons Obras y Proyectos* enpresari esleitzea hirurehun eta laurogeita bederlatzi mila hirurehun eta hirurogeita hamalau euroan -389.374,00 €- (BEZ barne).

## **BATZORDEEN INFORMAZIOA**

Ez dago.

### **GALDE-ESKEAK**

Ez dago.

Aztergai gehiagorik ez dagoela, eta arratsaldeko zazpiak eta hamar minutu direnean, udalburuak bilkura amaitutzat jo du. Idazkari naizen honek bilkuraren Akta jaso, eta horren Egiaztapena egiten dut.